

## HITZAR

(Talde sustatzailearen jarraipen bilera)

<b>DATA</b>	2002-11-21
<b>BERTARATUAK</b>	Nagore eta Iñaki (Itsasondoko Udala), Naroa (Goiener), Iker, Josu Ainhoa eta Fede (herritarrak), Erkuden (Tandem Komunikazioa) Nerea (Biziola)
<b>GAI ORDENA</b>	Lan lerro estrategikoen plangintzatzea Batzar Irekien prestaketa

### 1.- Ongi etorria eta bileraren kokapena

Ongi etorria ematen zaie bilerara gerturatutako guztie, bide batez bileran egingo denaren berri ematen da.

### 2.- HITZARen lan-lerro estrategikoen aurkezpena:

Talde sustatzailearen azken bileran adostutakoari jarraiki (2022-10-24) Hitzar Kooperatibak izango dituen hiru lan-lerro estrategikoen aurkezpen laburra egiten da<sup>1</sup>.

Lan-lerro hauek epe motz zein ertainean komunitatearen jardura bultzatzeko ezinbestekoak izango diren ekintzak jasotzen dituzte. Bestetik, kooperatibaren bizitzaren faseek markotuko dituzte erritmoak eta lehentasunak.

**2.1.- Proiektugintza:** Energia berriztagarria eskuratzeko proiektu konkretuen lanketa.

**2.2.- Kooperatibaren kudeaketa:** Zeregin administratibo eta juridikoak jasotzen ditu lerro honek: Kooperatibari dagozkion diru-kontuen eta alderdi tekniko juridikoen jarraipena.

---

<sup>1</sup> Aktaren batera helaraziko da Goienerretik Hitzarren hurrengo pausoak definitzeko prestatu den dokumentua.



**2.3.-Komunikazioa eta hedapena:** Egungo bazkideekin komunikazioa, bazkide berriak lortzeko estrategiak, etab. jasotzen ditu lerro honek.

Zereginak hiru lan-lerro ezberdinetan banatu diren arren, ez dugu ahaztu behar, lerro bakoitzean egiten diren lanketek edo hartzen diren erabakiek beste bi lerrotan eragiten dutela.

### **3- Lerro estrategikoen plangintzatzea:**

Behin lerroen aurkezpen orokorra eginda, lerroz lerro, hurrengo zereginak plangintzatu dira. ZER egingo den, NOIZ egingo den eta NORK egingo duen definituz.

ZEREGINAK	PROIEKTUGINTZA				
	2022		2023		
	AZAROA	ABENDUA	URTARRILA	OTSAILA	MARTXO-ABENDUA
<b>Fakturen jasoketa</b>					
Lotura prestatu	A-25 / Ainhoa				
Hitzar Whaspp taldean bazkideak sartu	A-25 / Nagore				
Fakturak eskatzeko mezua	A-30/ Nerea				
Datuen babeserako dokumentua	A-28 / Naroa - Erkuden				
Fakturak jasotzeko azken eguna		A-5 / Ainhoa (jarraipen orokorra)			
<b>Udal instalazioak Hitzarrera "ekartzeko" aukeraren azterketa</b>					
Azterketa tekniko juridikoa	Goienar / Fede				
Azterketa teknikoa (konpatibilidadeak, etab.)	Fede				
<b>Iraolako Ustiatetikoa azterketa tekniko –Ekonomikoa</b>					
Azterketa teknikoa	Goienar / Krea		U-9 Bukatuta		
Bideragarritasun ekonomikoko azterketa	Goienar		U-9 Bukatuta		
<b>Zentral Etxeko azterketa tekniko-ekonomikoa</b>					
Azterketa-tekniko-ekonomikoa	Krea		U-9 Bukatuta		
<b>Batzar ireki informatiboa bazkide guztiekin</b>					
Batzarren prestaketa			Talde Sustatzailea		
Batzarra egin dinamizatu				XX	

Erabakiak hartzeko batzarra bazkide guztiekin					
Batzarren prestaketa				Talde Sustatzailea	
Batzarra egin dinamizatu (Kosteei eta banaketari buruzkoak)				XX	
Hartutako erabakien jarraipena (tramite burukatikoak)					DEFINITU GABE
Sorkuntza proiektu berrien lanketa					
Itsasondoko poligono industrialeko enprekin lanketak	Proiektugintza lan-taldea / Krea				

**PROIEKTUGINATZAKO LAN-TALDEA:** Goiener (zerbitzu emale gisara), Krea, Nagore (Udala), Ainhoa eta Iker.

ZEREGINAK	KOOPERATIBAREN KUDEAKETA				
	2022		2023		
	AZAROA	ABENDUA	URTARRILA	OTSAILA	MARTXO-ABENDUA
Kooperatiba sortzeko azken pausoak ematea					
Kooperatiben erregistroarekin jarraipena	Goiener				
Oraindik bazkidetza kobratu ez zaien bazkideen identifikazioa	Goiener				
IFZ eskuratzea	Hitzar (Goinerren bidelaguntzarekin)				
Kontu Korrontea irekitzea	Hitzar (Goinerren bidelaguntzarekin)				

Falta diren bazkideei kobroa egitea		Hitzar (Goinerren bidelaguntzarekin)			
<b>Barne araudiaren lehen zertzeladak</b>					
Energiaren banaketaren inguruan hartutako erabakiak baren araudira eramatea				Hitzar (Goinerrek ereduak ekarrita)	
<b>Kontu administratibo ekonomikoen jarraipena</b>					
Diru-laguntzak					DEFINITU GABE
Fakturak, zergak					DEFINITU GABE
Kooperatibaren organoen kudeaketa					DEFINITU GABE
<b>Datuen babeserako politika</b>					
Datuen babeserako politika diseinatu					DEFINITU GABE

**Kooperatibaren kudeaketarako lan taldea:** Ez zen lan-taldea osatzerik lortu. Lehen urratsetan aholkularitza tekniko baten bidelaguntza interesgarria izango litzatekela aipatu zen talde sustatzailean.

ZEREGINAK	KOMUNIKAZIOA ETA HEDAPENA				
	2022		2023		
	AZAROA	ABENDUA	URTARRILA	OTSAILA	MARTXO-ABENDUA
<b>Hitzarren komunikazio kanalak aztertu eta definitzea</b>					
Hitzarrek erabili ditzakeen komunikazio kanal ezberdinak aztertzea	Erkuden				

Komunikazio aukera ezberdin horiek kontutan izanda lehen proposamen bat egitea	Erkuden			
<b>Bazkideen WhatsApp kanala aktibatzea</b>				
Ongi-etorri mezua prestatzea	A-25 / Nerea			
Ongi-etorri mezua bidaltzea	A-25 / Ainhoa			
Akta fundazionala helaraztea	A-28 / Nerea			
<b>Bazkideei informazioa eskura jartzea</b>				
Aktak egiteko plantilak prestatzea	A-28 / Erkuden			
Udalaren Web-gunean Hitzarren atala prestatzea aktan bertan eskura uzteko	A-28 / Erkuden			
<b>Aldizkarirako eduki proposamenak egitea</b>				
2023an zehar aterako diren hiru udal aldizkarietarako (Otsail_Marxoa / Uztaila/ Azaroa) eduki orokorrak pentsatzea	Erkuden / Fede			
Otsail-Martxorako aldizkarirako artikulua prestatzea				Erkuden / Fede

**Komunikazio eta hedapen lan taldea:** Erkudenen hartu zituen hainbat zerergin bere gain, baina taldetxo bat osatzea komeni dela aipatu zen. Fede zeregin konkretuetan (aldizkarirako edukiak) esku bat botatzeko prest agertu zen.

#### **4.- Batzar Irekiaren prestaketa:**

Gaurko bilera ez du Batzar Irekiaren inguruko prestaketa egiteko denborarik eman. Hori bai, bazkide guztiei begirako bi momentu edo batzar egitea komeni dela adostu da.

- Batzar Ireki informatiboa: Urtarrilaren bukaeran.
- Erabakiak hartzeko Batzar Irekia: Otsailaren bukaeran.

#### **5. Hurrengo bilera:**

Urtarrilaren 9an, arratsaldeko 17:30etan lotu zen hurrengo bilera. Dena den, hartutako konpromisoak zuzen betetzen goazela bermatzeko abenduan zehar lan-talde eta pertsona ezberdinekin harremanetan jarriko da Biziolatik Nerea.

#### **6.- Itxiera**

Amaitutzat eman zen bilera